

AURREPROIEKTUA: ____/2019 FORU ARAUA, ____ren __ (e)koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua aldatzen duena

ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL ____/2019, de __ de ____ por la que se modifica la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

Azken urteotan, Bizkaiko Foru Aldundiak estrategia bat garatu du Bizkaiko Lurralde Historikoa nazioarteko erreferente bihurtzeko ekintzaitzaren, oinarri teknologikoko enpresen sorreraren, talentua ekartzearen eta produkzio-jardueraren garapenaren arloetan. Estrategia hori funtsezko elementu gisa erabili du hazkunde ekonomiko adimentsu, iraunkor eta integratzaileko politika bat bultzatzeko, kalitate handiagoko enpleguaren maila altuago bat bermatuko duena, bai eta gure Ongizatearen Estatuaren funtsezko zutabea osatzen duten zerbitzu publikoek epe ertainean eta luzean irauteko behar besteko jarduera ekonomikoaren maila ziurtatuko duena ere.

La Diputación Foral de Bizkaia lleva desarrollando una estrategia en los últimos años para convertir al Territorio Histórico de Bizkaia en un referente internacional en materia de emprendimiento, creación de empresas de base tecnológica, atracción de talento y desarrollo de la actividad productiva, como elemento nuclear de una política de crecimiento económico inteligente, sostenible e integrador que garantice un mayor nivel de empleo de mayor calidad, así como un nivel de actividad económica que permita el sostenimiento en el medio y largo plazo de los servicios públicos que constituyen un pilar fundamental de nuestro Estado de Bienestar.

Estrategia horren barruan, neurriak garatu dira hazteko ahalmen handiko enpresa berrien sorrera sustatzeko, ekintzaitzaren zein kalitateko jarduera ekonomikoaren sorreraren kultura bat garatzeko, finantza-ahalmenak eta inbertsioa sendotzeko eta, azkenik, gure ekonomiaren garapenerako elementu bereizgarri izan daitezkeen goi-mailako kualifikazio eta prestakuntza duten langileak erakartzeko.

Dentro de esa estrategia se han desarrollado medidas para fomentar la creación de nuevas empresas de alto potencial de crecimiento, el desarrollo de una cultura de emprendimiento y generación de actividad económica de calidad, el reforzamiento de las capacidades financieras y la inversión y la atracción de talento de personal de alta cualificación y formación que pueda suponer un elemento diferencial para el desarrollo de nuestra economía.

Halaber, enpresa-proiektu horiek garatzeko behar besteko inbertsio-fluxua dagoela

Otra pieza esencial de esa estrategia es el desarrollo de los instrumentos financieros



bermatzeko beharrezko diren finantza-tresnak garatzea da estrategia horren funtsezko beste elementu bat. Helburua da finantza-baliabideak behar diren unean eskuragarri egotea; hala saihesten da enpresen galera-edo deslokalizazio-prozesuak gertatzea tokiko ekosisteman espezializatutako finantza-agenterik ez egoteagatik.

Azken urteetan, Europar Batasuneko herrialderik aurreratuenek zerga-politika bereziak garatu dituzte, bermatzeko toki-mailan badaudela inbertsio-funts alternatiboen kudeatzaileak, beharrezko finantza-baliabideak dituzten inbertsoreen eta enpresa-proiektu kaudimendunak dituzten ekintzaileen arteko konexioa sustatzen dutenak. Halako kudeatzaileek sortu dezakete Bizkaiko Foru Aldundiaren apustua den kalitateko handiko jarduera ekonomiko hori.

Esate baterako, azken urteetan, Erresuma Batuak, Frantziak, Alemaniak eta Italiak zerga-neurri bereziak hartu dituzte enpresa-proiektuen finantziarioaren kudeaketako jarduera espezializatu hori garatzean lortutako etekin jakin batzuen tratamendurako. Jarduera horrek goi-mailako espezializazioa eta oso dedikazio trinkoa eskatzen ditu, baina, kasu gehienetan, berekin dakar ekintzailtza jasangarrian oinarritutako ekosistema baten garapena arrakastatsua izatea.

Beraz, Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzen ari den ekintzailtzaaren sustapenerako

precisos para garantizar que existe suficiente flujo de inversión para el desarrollo de esos proyectos empresariales, de forma que los recursos financieros estén disponibles en el momento preciso, evitando de esa forma posibles procesos de deslocalización o pérdida de empresas por falta de agentes financieros especializados en el ecosistema local.

Los países más avanzados de la Unión Europea han desarrollado en los últimos años políticas fiscales específicas para garantizar la presencia local de gestores de fondos de inversión alternativos que potencian la conexión entre los inversores que disponen de los recursos financieros precisos y los emprendedores con proyectos empresariales solventes, que pueden generar esa actividad económica de alta calidad por la que se apuesta en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Así, el Reino Unido, Francia, Alemania o Italia han adoptado en los últimos años medidas fiscales específicas para el tratamiento de determinados rendimientos obtenidos en el desarrollo de esa actividad especializada de gestión de la financiación de proyectos empresariales, que requiere de una alta especialización y una dedicación muy intensa y que posibilita, en la mayoría de los casos, el éxito del desarrollo de un ecosistema centrado en el emprendimiento sostenible.

Por lo tanto, un elemento importante para la estrategia de fomento del emprendimiento, que



estrategiarentzat, munta handikoa da Europar Batasuneko ekonomia garrantzitsuenek ezarri dutenaren baliokide izan daitekeen esparru fiskal bat ezartzea, gure lurraldean halako jardueren garapen egokia ahalbidetuko duena.

se está desarrollando en el Territorio Histórico de Bizkaia, es el que permite el establecimiento de un marco fiscal equiparable al que han implementado las economías más importantes de la Unión Europea para permitir el adecuado desarrollo de este tipo de actividades en nuestro territorio.

Gainera, jabetu behar gara Europar Batasuneko estatu batzuetan une hauetan gertatzen ari diren mugimenduez; izan ere, lurraldean enpresa-proiektuak garatzeko aukera emango duen ekosistema bat sortzeko interes handiko aukera-leihoak ireki daitezke mugimenduoiei esker.

Además, hay que ser conscientes de los movimientos que se están produciendo en algunos Estados Miembros de la Unión Europea en estos momentos, que pueden abrir ventanas de oportunidad muy interesantes para crear un ecosistema que permita desarrollar los proyectos empresariales en el territorio.

Horrenbestez, foru-arau honek tribututratamendu berezi bat ezarri nahi du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, ekintzaitzari, berrikuntzari eta jarduera ekonomikoaren garapenari lotutako funtsen kudeaketan parte hartzeagatik ordainsari gisa lortzen diren eduki ekonomikoko eskubide bereziei aplikatzeko.

Por lo tanto, esta Norma Foral acomete la tarea de establecer un tratamiento tributario específico en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de los derechos especiales de contenido económico que se perciben como retribución de la participación en la gestión de fondos vinculados al emprendimiento, a la innovación y al desarrollo de la actividad económica.

Tributu-administrazioak erregimen berezi berriaren aplikazioa behar bezala kontrolatzen dela bermatzeko, aurretiazko komunikazio bat aurkeztu beharko da, eta urtero hautatu beharko da erregimen hori aplikatzeko aukera, autolikidazioarekin batera, hala bermatuko baita xedatutako betekizun guztiak betetzen dituztenek bakarrik aplikatu ahal izango dutela ezarritako tratamendu berria.

Para garantizar un adecuado control por parte de la Administración tributaria de la aplicación del nuevo régimen especial establecido se dispone la necesidad de presentar una comunicación previa y se configura cada año su aplicación como una opción a ejercitar con la presentación de la autoliquidación, lo que permitirá garantizar que el tratamiento



establecido solamente se aplica por quien cumpla todos los requisitos previstos.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatua betetzeko, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru-arau honi, bai eta genero-eraginaren ebaluazioaren gaineko txostena ere.

En cumplimiento de lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 55 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, acompañan a la presente Norma Foral el informe de memoria económica, así como el informe de evaluación de impacto de género.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Asimismo, se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Artikulu bakarra. *13/2013 Foru Araua, 2013ko abenduaren 5ekoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.*

Artículo único. *Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.*

Honako aldaketa hauek egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauan:

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Bat. Aldatu egiten IV. tituluko VI. bis kapituluaren izena, eta honela geratzen da idatzita:

Uno. Se modifica la denominación del Capítulo VI Bis del Título IV, que queda redactado en los siguientes términos:

«VI. BISKAPITULUA. ERREGIMEN BEREZIAK»

“CAPÍTULO VI BIS REGIMENES ESPECIALES”



Bi. 56. ter artikulua gehitzen da; hau da haren edukia:

«56. ter artikulua. *Ekintzailetzari, berrikuntzari eta jarduera ekonomikoren garapenari lotutako funtsak kudeatzearen zioz lortutako lan-etekinak.*

1. Lan-etekintzat joko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/EB Zuzentarauan (inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileei buruzkoa da, eta 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentarauak eta 1060/2009 (EE) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak aldatzen ditu) definitutako inbertsio alternatiboko funtsetako edozeinetan eskubide ekonomiko bereziak ematen dituzten partaidetza, akzio edo bestelako eskubideetatik lortutako etekinak, haien forma edo izaera juridikoa edozein izanik ere, entitateotako edo entitateon erakunde kudeatzaileetako edo taldeko entitateetako administratzaileek, kudeatzaileek edo enplegatuek lortutakoak direnean.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren etekinak haien zenbatekoaren 100eko 50ean sartuko dira zerga-oinarrian, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Partaidetza, akzio edo eskubide horien eskubide ekonomiko bereziek bete beharrekoa

Dos. Se añade un nuevo artículo 56.ter, con el siguiente contenido:

“Artículo 56.ter. *Rendimientos de trabajo obtenidos por la gestión de fondos vinculados al emprendimiento, a la innovación y al desarrollo de la actividad económica.*

1. Tendrán la consideración de rendimientos de trabajo los derivados de participaciones, acciones u otros derechos que otorguen derechos económicos especiales en cualquier tipo de Fondo de Inversión Alternativa de los definidos en la Directiva 2011/61/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 8 de junio de 2011, relativa a los gestores de fondos de inversión alternativos y por la que se modifican las Directivas 2003/41/CE y 2009/65/CE y los Reglamentos (CE) número 1060/2009 y (UE) número 1095/2010, cualquiera que sea su forma o naturaleza jurídica, obtenidos por las personas administradoras, gestoras o empleadas de dichas entidades o de sus entidades gestoras o entidades de su grupo.

2. Los rendimientos a que se refiere el apartado anterior se integrarán en la base imponible en un 50 por 100 de su importe cuando se cumplan los siguientes requisitos:

a) Los derechos económicos especiales de dichas participaciones, acciones o derechos



dute baldintza bat; hain zuzen, inbertsio alternatiboko erakundean dauden gainerako inbertsoreek lortzea inbertsio alternatiboko erakundearen erregelamenduan edo estatutuan definitutako gutxieneko errentagarritasun bermatua.

b) Partaidetzak edo eskubide bereziak bost urtez mantendu beharko dira, gutxienez, salbu eta aurretiaz likidatzen direnean, baliorik gabe geratzen direnean edo osorik edo partez galtzen direnean erakunde kudeatzailea aldatzearen ondorioz. Kasu horretan, beharrezkoa izango da etenik gabe mantentzea, inguruabar horiek gertatu bitartean.

Letra honetan xedatutakoa eskatu ahal izango zaie artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen diren erakundeei, baldin eta partaidetzen, akzioen edo eskubideen jabetza badute.

3. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatu nahi dutenek aurretiazko komunikazio bat aurkeztu beharko dute Tributu-administrazioaren aurrean, erregelamenduz ezarriko diren modu eta baldintzetan.

Aurreko zenbakian xedatutakoa zergaldi bakoitzean aplikatzeko, autoliquidazioaren aurkezpenarekin batera erabili beharreko aukera hautatu beharko da, eta zergaren autoliquidaziorako borondatezko epea amaitu ondoren aldatu ahal izango da, non eta Tributu-administrazioak aurretiazko errekerimendu bat egin ez badu».

estén condicionados a que los restantes inversores en la entidad de inversión alternativa obtengan una rentabilidad mínima garantizada definida en el reglamento o estatuto de la entidad de inversión alternativa.

b) Las participaciones o derechos especiales deberán mantenerse durante un período mínimo de cinco años, salvo que se liquiden anticipadamente o queden sin efecto o se pierdan total o parcialmente como consecuencia del cambio de entidad gestora, en cuyo caso, deberán haberse mantenido ininterrumpidamente hasta que se produzcan dichas circunstancias.

Lo dispuesto en esta letra será exigible a las entidades a que hace referencia el apartado 1 de este artículo en los supuestos en los que las mismas detentan la propiedad de las participaciones, acciones o derechos.

3. Los y las contribuyentes que quieran aplicar lo dispuesto en este artículo deberán presentar una comunicación previa ante la Administración tributaria, en los términos y con los requisitos que se establezcan reglamentariamente.

La aplicación en cada período impositivo de lo dispuesto en el apartado anterior tendrá la consideración de opción a ejercitar con la presentación de la autoliquidación, pudiendo ser modificada una vez finalizado el plazo voluntario de autoliquidación del impuesto siempre que no se haya producido un requerimiento previo de la Administración tributaria.”



Hiru. Aldatu egiten da 105. artikuluko i) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«i) Foru-arau honetako IV. tituluko VI. Bis kapituluan jasotako erregimen bereziak aplikatzeko aukera».

Tres. Se modifica la letra i) del artículo 105, que queda redactada en los siguientes términos:

“i) La opción por la aplicación de los regímenes especiales previstos en el Capítulo VI Bis del Título IV de esta Norma Foral.”

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Foru-arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Disposición final única. *Entrada en vigor.*

La presente Norma Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y producirá efectos desde 1 de enero de 2020.